

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3574

78/2026 EBAZPENA, uztailaren 31koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita «Alokaplus – Alokairu Seguruko Programa» marka espezifikoa onartzen duen Erabakia.

Gobernu Kontseiluak, 2026ko ekainaren 9an egindako bilkuran, «Alokaplus – Alokairu Seguruko Programa» marka espezifikoa onartzen duen Erabakia onartu zuen, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea «Alokaplus – Alokairu Seguruko Programa» marka espezifikoa onartzen duen Erabakiaren testua. Erabakia ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 31KO 78/2026 EBAZPENARENA

ERABAKIA, «ALOKAPLUS – ALOKAIRU SEGURUKO PROGRAMA» MARKA
ESPEZIFIKOA ONARTZEN DUENA

Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuaren 3. artikulua xedatzen duenez, Jaurlaritzak eta haren administrazio-unitateek komunikazio publikoko adierazpen guztietan erabiliko dituzte, soilik eta eskusiboki, eskuliburu horretan jasotako elementuak. Horrenbestez, Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da) eta Lehendakariitzako idazkariak (gaur egun Erakunde-nortasunaren zuzendaria da, Lehendakariitzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren arabera) aldeko txostena eman ondoren, beste nortasun-marka eta -ikur espezifikoko batzuk erabili ahal izango dira zerbitzu edo jarduera publiko jakin batzuetarako.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak Lehendakariitzan aurkeztu zuen «Alokaplus – Alokairu Segurua-ren Programa» marka espezifikoa onartzeko eskaera (haren erakunde-nortasunaren eskuliburuan jasota dago marka hori) eta Nortasun Korporatiboaren zuzendaria aldeko txostena eman zuen 2026ko apirilaren 24an.

Espedientean dagoen memoria ikusita, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak proposatuta, eta egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– «Alokaplus – Alokairu Seguruko Programa» marka espezifikoa onartzea, ez-ordaintzei eta kalteei aurre egiteko alokairu-programa seguru gisa sortua, eta bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuetan kokatutako etxebizitzaren errentatzaileei eta jabeiei zuzendua, laguntza gisa.

Bigarrena.– Marka espezifikoko hori erabiltzeko moduak erakunde-nortasunaren eskuliburu horretan zehaztutakoak dira.

Hirugarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako Zuzendaritzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du.